

## Ordiziako Udala

2019IOSB0011

Ordizian, **2019ko uztailaren 23an** UDALBATZARRAK aparteko batzarra egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

### **BERTARATUTAKOAK:**

#### **LEHENDAKARIA:**

Adur Ezenarro Agirre jn.

#### **BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:**

Maitane Alvarez Garziandia	Ordiziako EH BILDU
Jon ander Caballero Zubelzu	Ordiziako EH BILDU
Ainhoa Jimenez Gofi	Ordiziako EH BILDU
Jesus M.Lariz Orbezabal	Ordiziako EH BILDU
Itsaso Muñoz Rodriguez	Ordiziako EH BILDU
Lander Mujika Onandia	Ordiziako EH BILDU
Jose Miguel Santamaría Ezeiza	EAJ/PNV
Arantxa Arocena Gomez	EAJ/PNV
Joseba Aranburu Ganzarain	EAJ/PNV
Xabier Crespo Ibarrolaburu	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Eritz Perlines Torres	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Miren Alazne Sukia Galparsoro	ORDIZIA ORAIN Elkarrekin-Podemos/Ezker Anitza-IU
Juan Ingacion Alonso Arratibel	ORDIZIA ORAIN Elkarrekin-Podemos/Ezker Anitza-IU
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE-EE (PSOE)

#### **IDAZKARIA:**

Ana Urkizu Kerejeta andrea

### **AZTERTUTAKO GAIK**

#### **EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIK:**


- 1.-Tokiko Gobernu Batzordeko kideen izendapen, alkateordeen izendapen, eskuordetutako zinegotzien izendapen eta kudeaketa aginduei buruzko Alkatearen ebazpenak jakinaraztea.
- 2.- Osatutako udal talde politikoen eta horien bozeramaileen berri ematea.
- 3.-Osoko bilkuren maiztasuna.
- 4.- Informazio Batzordeak eratzea.
- 5.- Udalbatzaren menpeko kide anitzeko udal organoetako ordezkariak izendatzea.
- 6.- Alkateak dedikazio eskusiboa izateko proposamena.
- 7.- Zinegotzien dedikazio eskusiboa izateko proposamena.
- 8.- Aldi baterako postu baten izendapenaren proposamena.
- 9.- Udal taldeen eta zinegotzien ordainsariak

#### **ORDUTEGIA:**

**HASIERA: 18:00 etan**

**AMAIERA: 19:50ean**





## Ordiziako Udala

2019IOSB0011

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

### **1.- Tokiko Gobernu Batzarreko kideen izendapen, alkateordeen izendapen, eskuordetutako zinegotzien izendapen eta kudeaketa aginduei buruzko Alkatearen ebazpenak jakinaraztea.**

#### **2019/0665. DEKRETUA**

##### **HONAKO HAU IKUSIRIK:**

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21. eta 23. artikuluetan, eta
- Azaroaren 28ko 2568/1986 errege-dekretuak, Udal Korporazioen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena, 41,43,44,52,112 artikuluetan eta hurrengoetan.
- Udalaren Araudi Organikoaren 14.artikulua eta hurrengoak.
- Urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 9.artikulan eta hurrengoetan.

##### **ONDORENGOA ERABAKI DUT:**

**Lehena:** Tokiko Gobernu Batzarra eratzea eta alkateak eta bigarren puntuan zehazten diren zinegotziek osatuko dute.


**Bigarrena:** Honako hauek Tokiko Gobernu Batzarreko kide izendatzea:

- MAITANE ALVAREZ GARZIANDIA andrea, Ordiziako E.H. BILDU taldeko zinegotzia.
- JON ANDER CABALLERO ZUBELZU jauna , Ordiziako E.H. BILDU taldeko zinegotzia
- MIREN ALAZNE SUKIA GALPARSORO Andrea, ORDIZIA ORAIN Elkarrekin-Podemos/Ezker Anitza-IU taldeko zinegotzia.
- JOSE MIGUEL SANTAMARIA EZEIZA jauna, EAJ-PNV taldeko zinegotzia.
- IÑAKI DUBREUIL CHURRUCA, PSE-EE (PSOE) taldeko zinegotzia.

**Hirugarrena:** Organo horrek, Alkatetza honek eskuordetuta, jarraian zehaztutako eskumenak izango ditu eta baita eskuordetzen diren eskuduntzen baitan Tokiko Gobernu Batzarreak hartuko dituen ebazpenen aurrean aurkez litezkeen berraztertze errekurtsoen ebazpena era.

##### ▪ **Ogasuna-Ekonomia**

- Bere eskumeneko gaietan aurrekontuaren baliabide arrunten %5 eta %10 arteko gastuak onartzea.
- Udalbatzaren eskumenekoak ez diren kreditu aldaketak onartzea.
- Diru-laguntzak eta subentzioak norgehiagoka erregimenean emateko deialdiak eta ebazpenak onartzea. Eskuordetze honetatik kanpo geratzen dira, eta honenbestez Alkatetzari dagokio azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Legeko Orokorraren 22 artikuluan aurreikusten diren mota guztietako laguntzak eta diru-laguntzak, horiek formalizatzeko hitzarmenak barne, eta baita gizarte larrialdietarako planen arabera ematen diren gizarte laguntza, banakako laguntzak etab.



## Ordiziako Udala

2019IOSB0011

- Tasa eta zergetako likidazioen aurkako berraztertze errekurtsoen inguruko erabakia, txosten teknikoa eskaeraren aurkakoa denean.

- **Ondarea-kontratazioa**


- Lokalak doan lagatzea urtebete baino gehiagorako, baldin eta ez bada Osoko Bilkuraren eskuduntza.
- Ondare erantzukizun espedienteak ebaztea, 6.000 eurotik gorakoak direnean.
- Kontratazio espediente hauek onartzea: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio- kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten %10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere. Ahalmen horrek berarekin darama gastua baimentzeko ahalmena, baina kontra- tui buruzko legeriak kontratazio organoari esleitzen dizkion gainerako eginkizunak alkatearen eskuduntza izaten jarraituko dute.

Eskuordetze honetan ez dira kontratu txikiak sartzen.

- Gipuzkoako Foru Aldundiko kontratazio zentralaren kontratazio espedienteetara atxikitzea. Ahalmen horrek berarekin darama gastua baimentzeko ahalmena.
- Udalbatzaren eskumena ez diren toki-ondasunei buruzko emakidak esleitzea eta ondasun higiezinak eta ondare legediari lotutako eskubideak eskuratzea, baldin eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua ez bada aurre- kontuko baliabide arrunten % 10 baino handiagoa eta hiru milioi euro baino gehiago, eta baita ondarea besterentzea ere, balioa ez bada ehuneko edo zenbateko hori baino handiagoa.
- Bide administratibotik irazpena onartzea.

- **Hirigintza, ingurumena eta obrak.**

- Espresuki Udalbatzaren eskumena ez diren antolamendu orokorraren garapenerako tresnen onarpenak (hasierako eta behin-behineko izaera) eta baita hirigintza kudeaketa eta hirigintza proiektuen kudeaketarako tresnen onarpena ere.
- Obra handietarako baimenak ematea.
- Otsailaren 27ko 3/1998 legearen, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorraren IIA Eranskinean dauden jarduera klasifikatuen jarduera baimenak ematea.
- Aurri espedienteak ebaztea, berehalako aurrikoak izan ezik.
- Hirigintza esparruko espediente zigortzaileak erabakitzea.
- Baimenen edo lizentzien iraungipen-espeditentak erabakitzea.
- Zarata mapak eta ekintza planak onartzea, urriaren 16ko Euskal Autonomia Erkidegoko hotskutsadurari buruzkoa 213/2012 Dekretuaren 18. eta 19. Artikuluaren arabera, eta baita klima-aldaketaren aurkako ekintza-planak onartzea ere, Udalbatzaren esku-mena ez denean.



## Ordiziako Udala

2019IOSB0011

### ▪ Zigortzeko ahalmenena

- Udal Ordenantzen arau-hausteengatik zigor-espeditentea erabakitzea.

### ▪ Langileria.

- Plenoak onarturiko aurrekontua eta plantillaren arabera Lan Eskaintza Publikoa onartzea, pertsonala aukeratzeko eta lanpostuak hornitzeko frogen oinarriak eta deialdiak onartzea, eta finkoak eta aldizkakoak ez diren lansari osagarriak ematea.
- Diziplina espeditentek auzi-bideratzea eta edozein pertsonal mota, aurretik, ohartaraztea eta aldi baterako bere funtzioetatik baztertzea, estatu gaikuntzarako erreserbatuak dauden postuak betetzen dituzten funtzionarioak salbu, dagokion zigor erregimenaren arabera arautuko baitira.
- Udaleko pertsonal guztia saritu eta zigortzea, udaleko funtzionarioak zerbitzutik bereiztea edo lan legepeko langileria kaleratzea izan ezik.
- Funtzionarioen egoera administratiboak aitortzea, erretiroa barne.
- Karrerako funtzionarioak izendatzea.
- Udaleko bitarteko funtzionarioak izendatzea sei hilabetetik gorako epealdian.
- Udaleko pertsonal laborala kontratatzea sei hilabetetik gorako epealdian.

### ▪ Desadostasunak.

Eskuordetu gabeko eta Alkatetza honen baitan erreserbatuta dauden gaiak Gobernu Batzarrarengan eskuordetuko dira honako kasu hauetan:

- Gai berari buruz egindako txosten teknikoak kontraesankorrak izatea.
- Proposamen politikoen eta txosten teknikoen artean desadostasunak egotea.

Aginpideak delegatze hau toki-agintaldi honetara mugatzen da, aldi horretan aginpideak delegatu dituen organoak aginpide horiek baliogabetu, abokatu edo aldatzeko duen ahalmenaren kalterik gabe, beti ere horretarako ezarritako prozedura formalak beteta.

Urgentzia kasuetan edo beste arrazoiren batengatik (gaixotasuna, oporrak, etb.), FAA- aren 113 artikulua eskatzen duen moduan, legez dagokion deialdia egin ondoren, Batzordea baliogarria den quorum-a lortuta osatzea posible ez bada, Alkateak, eskuordetutako gaien gaineko akordioak hartu ahal izango ditu, eta horien berri egingo du hurrengo Tokiko Gobernu Batzordean.

**Laugarrena:** Tokiko Gobernu Batzarra ohiko bilkuran bilduko da ostegunetan , 13:00etan.


Adierazitako eguna jaieguna tokatuko balitz, bilkura hurrengo lanegunean egingo litzateke.

**Bosgarrena:** Abuztuan ez da ohiko bilerarik egingo, oporrak direla eta.

Aldez aurretik finkatutako eguna gabonetako edo aste santuko opor garaiaren barne dagoenean, aurreratu edo atzeratu egingo da bilera.

**Seigarrena:** Erabaki honek eragina izango du alkateak izendatutako Tokiko Gobernu Batzordearen lehen deialditik aurrera.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAABB54H.MEis>



## Ordiziako Udala

2019IOSB0011

**Zazpigarrena:** Dekretu hau jakinaraztea aipaturiko zinegotziei, Udalaren sail ezberdinetako eta Udalaren menpeko erakundeen arduradunei; udalbatzarrari egingo duen lehendabiziko osoko bilkuran berri ematea eta laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web orrian argitaratzea.

**Zortzigarrena:** Dekretu hau Alkatetzaren dekretu-liburuan kopiatu beharko da hitzez hitz, eta behean ageri den dataren hurrengo egunean sartuko da indarrean.

(2019/07/18)

.....

### 2019/0666. DEKRETUA

#### HONAKO HAU IKUSIRIK:

Alkate honek, 2019ko uztailaren 18ko 665 zenbakidun dekretuaren bidez, Tokiko Gobernu Batzarreko partaideak izendatu dituela.

Toki-Jaurebidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 23.3 atalak, Udal Araudi Organikoaren 19. eta 20 artikulua eta Toki-Erakundeen Antolakuntza, Jarduera eta Lege-jaurebidea arautzen duen azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege-dekretuko 41.3, 46, 47 eta 48 atalek ematen dizkidaten aginpideak.

#### ONDORENGOA ERABAKI DUT:

**Lehena:** Udal honetako alkateordeak izendatzea, hots, Tokiko Gobernu Batzordeko kideetatik ondorengo zinegotziak:

Lehenengo alkateordea: **MAITANE ALVAREZ GARZIANDIA** andrea, Udal honetan EH BILDU koalizioko zinegotzia.

Bigarren alkateordea: **JON ANDER CABALLERO ZUBELZU** jauna, Udal honetan EH BILDU koalizioko zinegotzia.


**Bigarrena:** Alkatea absente, kanpoan edo gaixorik egongo balitz, indarrean dagoen legeriak aitortzen dizkidan ahalmen eta eskumenak, bereziki bankuetako ordain-beharrak baimentzekoei buruzko agindu-emateak, alkateordeek egingo dituzte, beti ere ezarritako ordenaren arabera.

**Hirugarrena:** Afera hauen inguruan Alkateak herritik irten beharko balu, dekretu bidez adieraziko du absentiaren iraupena eta bere eskumenak bere gain hartuko dituen Alkateordea izendatuko du.

Ordezkapen hau ez balitz espresuki egingo, Alkatea lehenengo Alkateordeak ordezkatuko luke, eta hura ere ez balitz egongo, bertan egongo litzatekeen Alkateorderen batek; ebazpen honetan izendatutako hurrenkeran, eta horren berri eman beharko dio gainerako udalbatzarrei.

**Laugarrena:** Dekretu honen berri emango zaie alkateordeei. Gainera, bertan adieraziko zaie jarduneko Alkate gisa buruturiko ekintzen berri Alkateari jakinarazi beharko dietela eta ezin izango dutela Alkate honek lehendik eginiko eskuordetzak aldatu edo eskuordetza berririk egin.

**Bosgarrena:** Dekretu hau jakinaraztea Udalaren sail ezberdinetako eta Udalaren menpeko erakundeen arduradunei, udalbatzarrari egingo duen lehendabiziko osoko bilkuran honako dekretu honen berri ematea eta laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web orrian argitaratzea.



## Ordiziako Udala

2019IOSB0011

**Seigarrena:** Dekretu hau Alkatetzaren dekretu-liburuan kopia beharko da hitzez hitz, eta behean ageri den dataren hurrengo egunean sartuko da indarrean.

(2019/07/18)

.....

### **2019/0674. DEKRETUA**

#### **HONAKO HAU IKUSIRIK:**

Toki-jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.3 eta 23.4 atalek, eta Toki-Erakundeen Antolakuntza, Jarduera eta Lege-jaurbidea arautzen duen azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege-dekretuko 43.3 atalak ematen dizkidaten aginpideak.

Udal gobernu eta administrazioari bizkortasuna eta eraginkortasuna areagotzeko Alkatetza honek beharrezko jotzen du hainbat eskumen eskuordetzea ebazpen honetan jasotzen diren hainbat udal gobernuko ordezkariengan.

Era berean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11 atalaren arabera, beharrezko jotzen da hainbat gairen kudeaketa ebazpen honetan jasotzen diren hainbat udal gobernuko ordezkari agintzea.

#### **ONDORENGOA ERABAKI DUT:**


**LEHENENGOA:** Jarraian adierazten diren zinegotzietan, Tokiko Gobernu Batzordean eskuordetu ez diren Alkatetza honen eskuduntzak eskuordetzea, zehazten diren gaietan, eta eskuordetzeak aipatu gaien inguruan ebazpenak emateko eskumena jasotzen duela zehaztuz.

- Maitane Alvarez Garziandía: zerbitzuak, mantenua, ekonomia garapena, ingurumena eta euskara.
- Ainhoa Jimenez Goñi: ongizatea, hezkuntza eta berdintasuna.

**BIGARRENA:** Eskuordetza horiek eskurantzak hauek barne hartuko dituzte, dagozkien jarduera eremuetan.

Gobernu sail/azpisail, zerbitzu eta gai guztietan eskuordetutako eskuduntza amankomunak:

- Alkatea eta Udala ordezkatzeko bere ordezkari eremuan.
- Dagokion saileko/azpisaileko zerbitzuen zuzendaritza politikoa, programazioari, antolamenduari eta kudeaketari dagokionez, saileko/azpisaileko programa eta zerbitzuak onartzea eta horiek gauzatzeko dekretuak ematea.
- Udal gobernuak ezartzen dituen ildoaren arabera, politika sektorialen diseinu, proposamen eta zuzenketa.
- Saila/azpisaila eta azpisailak (sailaren kasuan) zuzentzea eta udal-organo eskudunari proposatzea egitura edo egituraren aldaketa.
- Bilerak eta harremanak izatea dagokion batzorde informatzaileko lehendakariarekin eta saileko eta arloko gainerako zinegotzi ordezkariarekin eta arduradun teknikoekin, elkarrekin koordinaturik egoteko eta elkarren berri izateko, nagusiki arloko koordinazio bileren baitan.
- Udalak uneoro bultzatzen dituen zeharkako ekimenak dagokion sail/azpisailak garatzearen ardura politikoa eta ekimen horien garapena sail/azpisailean bultzatzea, indarreko legedia betetzeko



## Ordiziako Udala


2019IOSB0011

helburuarekin, etengabeko hobekuntzaren politikaren baitan, helburuak betetzeko, eta zerbitzu publikoen modernizazioa eta kalitatea bermatzeko.

- Dagokion sail/azpisailerako GGBBtako azpisailari giza baliabide berriak (finkoak nahiz aldi baterakoak) proposatzerakoan edo giza baliabide horien baldintzen aldaketa bat sail/azpisaileko zinegotzi ordezkariaren beharren txostena teknikari arduradunarekin batera.
- Sail/azpisaileko teknikari arduradunarekin batera dagokion aurrekontu proposamena egitea, dagokion helburuak zehaztuz eta hauek ebaluatuz Ogasun sailetik finkatutako irizpideei jarraituz. Zentzu berdinean sail/azpisailerako edozein aldaketa planteatuz gero. Baita ordenantza fiskalei dagokienean sail/azpisailarekin lotutako edozein aldaketa/berrikuspenen kasuan, etab.
- Udalbatzarraren eta Tokiko Gobernu Batzarraren gai zerrendan sail/azpisaileko gaiak sartzeko proposatzea.
- Alkateari dagokion sail/azpisailarekin lotutako akordioak hartzeko proposamenak egitea, eskuordetuak ez dauden eskumenei dagozkien kasuan.
- Dagokion batzorde informatzaileko lehendakariari proposatzea bere ordezkaritza eremuarekin lotutako gaiekiko batzordearen iritzi eskaera, Udalbatzarraren eskumena izan gabe ere, gaiaren garrantziaren baitan batzordearen iritzia ezagutzea egokia dela pentsatzen duenean dagokion akordioa hartu aurretik.
- Dagokion batzorde informatzaileko lehendakariari proposatzea bere ordezkaritza eremuarekin lotutako gaiekiko berri ematea batzordearentzat gai interesgarriak izan eta organo eskudunek horien inguruan erabakitzen dituztenean.
- Bere sailari/azpisailari dagozkion ordenantza, araudi eta erabakiak betearaztea.
- Kontratu txikiak: bere ordezkartzako sail/azpisaileko gaietan bere osotasunean kontratu txikien espedienteak artezteak, zenbatekoa edozein dela ere. Kontratu txikien kasuan beraz kontratazio organoa izango da. Eskumen hau egikartzeko indarreko legediak eta udalak onartutako gainerako araudi eta irizpideak jarraitu beharko dira.
- Gainerako kontratuak: kontratu txikietatik kanpo kontratazio organoa Tokiko Gobernu Batzordea izango da alkatearen delegazioz, legez eskuduntza hori udalbatzari dagokionean izan ezik. Kontratazioen hasiera dagokion sail/azpisaileko zinegotzi ordezkariaren proposamenaren baitan burutuko da. Aurrekoa sail/azpisail bakoitza delako bere kontratuen exekuzioaren arduradun. Eta edozein kasutan, Ondare eta Kontratazioko azpisailarekin koordinatuz.
- Obra proiektuak edo zerbitzuen edo horniduren memoriak, proiektuak edo baliokideak onartzea, zinegotzi ordezkaria kontratatzeke eskuduna denean, aurreko atalean aurreikusitakoaren arabera.
- Diru-laguntzak, bekak, sariak eta beste laguntzak: eskuordetutako sail/azpisailari dagozkion gaiekin lotuta, bai beste erakundeek onartutako deialdiak direla-eta udala onuradun izan daitekeen espedienteak bere osotasunean izapidetzea, baita udalak deitutako diru-laguntza, beka, sari eta bestelako laguntzak emateko prozedurak, norgehiagokan nahiz zuzenean ematen direnak izanda ere, Tokiko Gobernu Batzordean eskuordetu ez diren kasuetan.

Diru-laguntzak emateko prozeduren eskumen eskuordetzearen baitan, bai udala eskatzaile eta bere kasuan onuradun bezala diharduenean, bai eta hirugarrenen eskaeren aurrean udalak esleitzen dituztenean ere, ondorengoak hartuko dira eskuordetuztat: izapidetako edo behin betiko dokumentuak sinatzea, ordezkaritza gauzatzeko beharrezkoak diren ebazpen-proposamenak eta dekretuak barne. Bereziki, beste batzuen artean, ondorengoak: diru-laguntza eskaerak aurkeztearekin lotutakoak dagokien proiektu/memoriekin etab batera eta zuri-eraketarako dokumentazio guztiarekin batera, diru-laguntzen lerro bakoitzaren oinarriak eta deialdiak onartzea; diru-laguntzaren inguruko ordainketa betebeharra





## Ordiziako Udala

2019IOSB0011

baimendu, disposatu eta aitortzea; zuriketa baino lehen ordainketa aurreratuak egiteko baimena; deialdi bakoitzari dagokionez Balorazio Batzordea osatzea eta kideak izendatzea; diru-laguntzaren zuriketa egiaztatzen duen txosten teknikoari oniritzia ematea; orokorrean diru-laguntzak egiaztatzeko eta diru-laguntzak itzultzeko prozeduren inguruko eskuduntzak; egoki bada, hautaketa-prozesua hutsik uztea eta diru-laguntza zuzenetarako hitzarmenak onartu eta sinatzea.

Hala ere, erabakitzen bada organo iraunkor bat sortzea Udaleko sail edo azpisail guztietatik, nahiz erakunde autonomoaren zerbitzuetatik onartzen diren diru-laguntzen deialdietarako, alkateak eskumena izango du balorazio-batzodea eratzeko eta kideak izendatzeko, eskabideak aztertu eta balora ditzaten. Eta baita beharrezkoa balitz deialdi bateratuak bultzatze aldera alkateak onartuko lituzke oinarri orokorrak.

Beka, sari eta bestelako laguntzak emateko prozedurari dagokionez, eskuordetzeak erreferentzia egingo dio izapideko edo behin betiko dokumentuak sinatzeari, ordezkariak gauzatzeko beharrezkoak diren ebazpen-proposamenak eta dekretuak barne, beti ere Tokiko Gobernu Batzordean eskuordetu ez diren kasuetan.

- Zerbitzuen ohiko funtzionamenduak eragindako gastuak onartzea, bere sail/azpisailari atxikitakoak direnean eta betiere kontratu txikien mota ezberdinetarako ezarritako gehienezko diru kopuruen azpitik.
- Jabari publikoan edo bere kasuan udal eraikin itxian aisialdiko, kulturako, kiroleko, hezkuntzako, etab.eko jarduera burutzeko eta berau garatzeko materiala uzteko eta erabiltzeko baimena ematea, bere ordezkariak sail/azpisaileko gaietan.
- Festa programa, jaialdi eta gainerako edozein motatako ekintzen eta jardueren programazioa, planifikazioa eta onarpena, bere ordezkariak sail/azpisaileko gaietan.


**HIRUGARRENA:** Jarraian zehazten diren gaien kudeaketa jarraian zehazten diren zinegotzietan agintzea, kudeaketa agindu horrek inolako eskuduntzen delegazioa ez du eragingo eta ezta ebazteko eskuduntzari ere ez.

- Jon Ander Caballero Zubelzu: Gazteria eta Kirola
- Lander Mujika Onandia: Kultura
- Jesús Maria Lariz Orbezabal: Festak, ekitaldiak eta azoka bereziak.
- Itxaso Muñoz Rodriguez: Komunikazioa eta herritarren parte-hartzea

**LAUGARRENA:** Kudeaketa agindu hauek ezaugarri hauek izango dituzte Gobernu sail/azpisail, zerbitzu eta gai guztietan:

- Alkatea eta Udala ordezkatzeko bere ordezkariak eremuan.
- Dagokion saileko/azpisaileko zerbitzuen zuzendaritza politikoa, programazioari, antolamenduari eta kudeaketari dagokionez.
- Udal gobernuak ezartzen dituen ildoen arabera, politika sektorialen diseinu, proposamen eta zuzenketa.
- Saila/azpisaila eta azpisailak (sailaren kasuan) zuzentzea eta udal-organoren eskudunari proposatzea egitura edo egituraren aldaketan.
- Bilerak eta harremanak izatea dagokion batzorde informatzaileko lehendakariarekin eta saileko eta arloko gainerako zinegotzi ordezkariarekin eta arduradun teknikoekin, elkarrekin koordinaturik egoteko eta elkarren berri izateko, nagusiki arloko koordinazio bileren baitan.





## Ordiziako Udala

2019IOSB0011

- Udalak uneoro bultzatzen dituen zeharkako ekimenak dagokion sail/azpisailak garatzearen ardura politikoa eta ekimen horien garapena sail/azpisailean bultzatzea, indarreko legedia betetzeko helburuarekin, etengabeko hobekuntzaren politikaren baitan, helburuak betetzeko, eta zerbitzu publikoen modernizazioa eta kalitatea bermatzeko.
- Sail/azpisaileko teknikari arduradunarekin batera dagokion aurrekontu proposamena egitea, dagokion helburuak zehaztuz eta hauek ebaluatuz Ogasun sailetik finkatutako irizpideei jarraituz. Zentzu berdinean sail/azpisaileko edozein aldaketa planteatuz gero. Baita ordenantza fiskalei dagokienean sail/azpisailekin lotutako edozein aldaketa/berrikuspenen kasuan, etab.
- Udaltzarraren eta Tokiko Gobernu Batzarraren gai zerrendan bere sail/azpisaileko gaiak Alkateari sartzeko proposatzea.
- Alkateari dagokion sail/azpisailekin lotutako akordioak hartzeko proposamenak egitea.
- Dagokion batzorde informatzaileko lehendakariari proposatzea bere eremuarekin lotutako gaiekiko batzordearen iritzi eskaera, Udaltzarraren eskumena izan gabe ere, gaiaren garrantziaren baitan batzordearen iritzia ezagutzea egokia dela pentsatzen duenean dagokion akordioa hartu aurretik.
- Dagokion batzorde informatzaileko lehendakariari proposatzea bere eremuarekin lotutako gaiekiko berri ematea batzordearentzat gai interesgarriak izan eta organo eskudunek horien inguruan erabakitzen dituztenean.
- Bere sailari/azpisaileko dagozkion ordenantza, araudi eta erabakiak betearaztea.
- Festa programa, jaialdi eta gainerako edozein motatako ekintzen eta jardueren programazioa eta planifikazioa.

**BOSTGARRENA:** Dekretu hau jakinaraztea aipaturiko zinegotziei, Udalaren sail ezberdinetako eta Udalaren menpeko erakundeen arduradunei; udaltzarrari egingo duen lehendabiziko osoko bilkuran berri ematea eta laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web orrian argitaratzea.

**SEIGARRENA:** Dekretu hau Alkatetzaren dekretu-liburuan kopiatu beharko da hitzez hitz, eta behean ageri den dataren hurrengo egunean sartuko da indarrean.

(2019/07/18)

### Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:


#### Alkate jn.

Tokiko Gobernu Batzordeko kideak izendatzeko eta Alkateak Batzordeari eskumenak eskuordetzeko, alkateordeak izendatzeko eta zinegotziengan eskumenak eskuordetzeko eta kudeaketak agintzeko 665, 666 eta 674 zenbakidun Alkatetza dekretuen berri ematea, hurrenez hurren.

Tokiko Gobernu Batzordea astero egingo dela adierazi du.

Horrekin batera, jakinarazi du, bi zinegotziri egindako eskuordetzen bidez, bi zinegotzi hauek eskuordetzan dituzten gaietan erabakiak hartzeko eskumena izango dutela. Aurreko legealdiekin alderatuta berrikuntza da honako hau, eta zehaztu du Zinegotzi-Selegatu gisa dekretuak sinatzeko ahalmena izango dutela.

Kudeaketa aginduak zertan oinarrituko diren ere azaldu du.



## Ordiziako Udala

2019IOSB0011

**Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.**



Segidan alkateak hurrengo puntuaren berri eman du.

### **2.- Osatutako udal talde politikoen eta horien bozeramaileen berri ematea.**

Segidan Udalean jaso diren udal taldeen osaketarako jakinarazpenen berri ematen da.

Honela, ondorengoak osatu dira:

#### **EH-BILDU ORDIZIA**

1. Adur Ezenarro Agirre (**bozeramailea**).
2. Maitane Alvarez Garziandia.
3. Jon Ander Caballero Zubezu.
4. Ainhoa Jimenez Goñi.
5. Jesus M.Lariz Orbezabal.
6. Lander Mujika Onandia.
7. Itsaso Muñoz Rodriguez

#### **EAJ/PNV**

1. Jose Miguel Santamaría Ezeiza (**bozeramailea**).
2. Arantxa Arocena Gomez.
3. Joseba Aranburu Ganzarain.
4. Xabi Crespo Ibarloraburu.
5. Arantxa Fernandez Alvaredo.
6. Eritz Perlines Torres
7. Bittor Bolinaga Alcelay.

#### **ORDIZIA ORAIN Elkarrekin- Podemos / Ezker Anitza-IU.**

1. Mila Sukia Galparsoro (**bozeramailea**)
2. Juan Ignacio Alonso Arratibel.

#### **PSE-EE (PSOE)**

Iñaki Dubreuil Churruca (**bozeramailea**)

#### Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:


#### Alkate jn.

Udal talde politikoen eta bozeramaileen osaketaren berri eman dio osoko bilkurari.

**Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.**



Segidan alkateak hurrengo puntuaren berri eman du.



**Ordiziako Udala**

2019IOSB0011

### **3.- Osoko bilkuren maiztasuna**

#### Proposamena

**Hileko azken ostegunean egingo dira ohiko osoko bilkurak, 18:00etan.**

**Uztaila eta abenduko bilkurak, astebete aurreratu ahal izango dira.**

#### Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

#### Alkate jn.

Osoko bilkurek hilean behin izaten jarraituko dutela esan du, orain arte bezala hileko azken ostegunetan egingo direla, baina ordua aldatuko da, familiarekin bateragarri egiteko, hau da, 18,00etan.

Uztaila eta abenduko bilkurak aurreratu ahal izango dira.

#### Bozketa

**Aldekoak:** 17 (Ordiziako EH BILDU 7, EAJ-PNV 7, ORDIZIA ORAIN Elkarrekin-Podemos/Ezker Anitza-IU 2, PSE-EE(PSOE),1)

**Aurkakoak:** 0.

**Abstentzioak:** 0.

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**



Segidan alkateak hurrengo puntuaren berri eman du.

### **4.- Informazio Batzordeak eratzea eta honen konposaketa.**


#### Proposamena

Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiko 123. artikularekin bat etorriz (AJA), Batzorde Informatiboak osoko bilkuraren eta Tokiko Gobernu Batzordearen erabakiaren menpe jarri behar diren gaietarako buruzko azterlana, txostena edo kontsulta egin behar dute, eta, horretarako, eskumena duten gaien azterlan, txosten edo kontsulta egin beharko dute, osoko bilkurak emandako eskumenak erabiliz.

Era berean, gobernu-batzarraren eta alkatearen eskumeneko gaietarako buruzko informazioa emango du, haiek horrela erabaki eta jakinarazi ondoren. Irizpenak, derrigorrezkoak behartze-indarrik gabekoak izango dira.

Batzorde informatibo iraunkorrak izaera orokorrez eratzen dira, eta, horien artean, Osoko Bilkurak erabaki behako dituen gaiak aztertuko dira. Hasierako batzordeen kopurua eta izendapena, bai eta horien gaineko edozein aldaketa ere, osoko bilkuraren erabakiaren bidez hartu beharko dira, alkateak proposaturik, eta, ahal den neurrian, zerbitzu korporatiboak egituratzen diren eremu handiekin duen lotura eta zenbakiarekin bat egingo du.

Batzorde informatiboak sortzeko akordioan, honako arau hauek oinarri hartuta zehaztuko da nolako osaera duten:



## Ordiziako Udala

2019IOSB0011

Alkatea da horien guztien berezko presidentea, baina korporazioko edozein kideren esku utzi ahal izango du, batzordeak berak proposatuta, eta bere baitan hautatuta.

Batzordeen osaera, korporazioan ordezkariak duten talde politikoaren artean dagoen proportzionaltasunera egokituko da.

Alderdi politikoko kideak, Batzorde bakoitzaren kide izateko, bozeramaileak sinatu eta alkateari zuzendutako idatziaren bidez egingo da. Alkateak osoko bilkurari jakinaraziko du.

Halaber, nahitaezkoa da Kontuen Batzorde Berezia sortzea, eta haren eraketa, osaera, integrazioa eta funtzionamendua gainerako informazio-batzordeetarako ezarritakora egokitzen da.

Kontuen Batzorde Bereziari dagokio, toki-erakundearen kontabilitatea arautzen duen legedian ezarritakoaren arabera, osoko bilkurak onartzen dituen kontu, aurrekontu eta aurrekontuz kanpoko kontu guztien azterketa, eta txostena.


Hori ikusita, udaleko informazio-batzorde hauek sortzea proposatzen da

### **1. LURRALDEAREN BATZORDE INFORMATIBOA**

- Lehendakariak: alkatea.
- Aztertu beharreko gaiak: Hirigintza, Ingurumena, Obra Publikoak, Obra Handiak, Proiektuak, Azpiegiturak eta Hirigintza-diziplina. Mugikortasuna eta irisgarritasuna. Industria, Nekazaritza, Azoka, Merkataritza eta Ostalaritza.
- Bokalak:
  - 2 EH-BILDU ORDIZIA.
  - 2 EAJ/PNV:
  - 1 ORDIZIA ORAIN Elkarrekin- Podemos / Ezker Anitza-IU.
  - 1 PSE-EE (PSOE).
- Maiztasuna: hilean behin. Ohiko Osoko Bilkura egin aurreko hamazazpigarren egunean.
- Ordua: zehazteke.

### **2.- ANTOLAKETAREN INFORMAZIO BATZORDEA**

- Lehendakariak: alkatea.
- Aztertu beharreko gaiak: kontratazioa eta ondarea, barne-kudeaketa, giza baliabideak, ogasuna eta finantzak, herritarren arretarako zerbitzua, IKT, artxiboa, Udaltzaingoa, Babes Zibila, Zerbitzuak eta Mantentze-lanak.
- Bokalak:
  - 2 EH-BILDU ORDIZIA
  - 2 EAJ/PNV
  - 1 ORDIZIA ORAIN
  - 1 PSE-EE (PSOE)
- Maiztasuna: hilean behin. Ohiko Osoko Bilkura egin aurreko hamaseigarren egunean.
- Ordua: zehazteke.



### **3.- HERRITASUNAREN BATZORDE INFORMATIBOA**

- Lehendakaritza: alkatea
- Aztertu beharreko gaiak: euskara, berdintasuna, aniztasuna, haurtzarora, zahartzarora, kultura, hezkuntza, lankidetzeta, herritarren parte-hartzea, Agenda 21 (orain 2030), turismoa, ekitaldiak koordinatzea, kirolak eta gazteria, giza eskubideak eta elkarbizitza.
- Bokalak:
  - 2 EH-BILDU ORDIZIA
  - 2 EAJ/PNV
  - 1 ORDIZIA ORAIN Elkarrekin- Podemos / Ezker Anitza-IU.
  - 1 PSE-EE (PSOE)
- Maiztasuna: hilean behin. Ohiko Osoko Bilkuraren aurreko hamabosgarren egunean
- Ordua: zehazteke.

### **4.- ONGIZATE ETA OSASUNAREN BATZORDE INFORMATIBOA**

- Lehendakaritza: alkatea.
- Aztertu beharreko gaiak: Ongizatea.
- Bokalak:
  - 2 EH-BILDU ORDIZIA
  - 2 EAJ/PNV
  - 1 ORDIZIA ORAIN Elkarrekin- Podemos / Ezker Anitza-IU.
  - 1 PSE-EE (PSOE).
- Maiztasuna: hilean behin. Ohiko Osoko Bilkuraren aurreko hamalagarren egunean
- Ordua: zehazteke.

### **5.- KONTUETAKO BATZORDE BEREZIA**


- Lehendakaritza: alkatea
- Tratatu beharreko gaiak: osoko bilkurak toki-erakundeen kontabilitatea arautzen duen legedian ezarritakoaren arabera Udalbatzak onartu behar dituen aurrekontu- eta aurrekontu-kontu guztien azterketa eta txostena.
- Bokalak:
  - 2 EH-BILDU ORDIZIA
  - 2 EAJ/PNV
  - 1 ORDIZIA ORAIN Elkarrekin- Podemos / Ezker Anitza-IU.
  - 1 PSE-EE (PSOE).
- Maiztasuna: Legez eskatzen den bakoitzean edo Alkate-Presidentea deitzen denean.

#### Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jn.

Aurreko legealdiarekin alderatuz Informazio Batzordeetan egin diren aldaketak azaldu ditu.



## Ordiziako Udala

2019IOSB0011

Lau Informazio Batzorde izango dira, aurreko legealdian bi zeuden; Gai Arrunten Batzordea eta Osoko Bilkurarako Gaien Batzordea.

Osoko Bilkurara eramango diren gaiak erabakiko dira batzorde horietan, eta interesgarriak izan daitezkeen gainerako gai batzuk ere bai. Horrez gain, Kontuetako Batzorde Berezia ere egingo da, legez nahitaezkoa baita osatzea.

- 1.- Lurraldearen Batzorde Informatiboa.
- 2.- Antolaketaren Batzorde Informatiboa.
- 3.- Herritasunaren Batzorde Informatiboa.
- 4.- Ongizate eta Osasunaren Batzorde Informatiboa.
- 5.- Kontuetako Batzorde Berezia.

Batzorde Informatibo bakoitzak ukituko dituen gaiak azaldu ditu.

Aipatutako batzordeetan udal talde bakoitzak izango dituen kide kopurua adierazi du, ordezkariarezkiko proportzionala, legeak ezartzen duen moduan. Lehendakaria alkatea izango da printzipioz, eta eratu eta gero, alkateak egoki ikusiz gero, lehendakaritza hori zinegotziren batengan eskuordetu ahal izango du.

Batzordeak publikoak izango dira.

### Santamaria jn.

Esan du Batzordeen eta antolakuntza ereduaren proposamenaz pozten dela, berak aurreko legealdian gaia landu baitzuen. Bere ustez sistema funtzionalagoa eta eraginkorragoa da. Horrekin batera esan du duela 4 urte ere funtzionamendu-sistema bera proposatu zuela eta ez zuela behar besteko berrespenik izan.

Alde bozkatuko dute.

Hala ere, adierazi du, antolakuntza proposamen berriari buruzko informazioa jasotzeko bilera proposatu zutela eta baiezkua jaso zutela; baina ez dutela bilerarik egin.

Bilera hori egiteko eskatu dute.

### Alkate jn.

Erantzun dio aurreko legealdian eredu hori lantzen ari zela entzun zuten arren, haiek ez dutela horri buruzko informaziorik jaso eta harritu egiten duela orain beraiek bilera informatiboa eskatzea. Roberto Otxandioekin (couth) gaia lantzen hasi zirenean, ez ziren inongo bilerara deituak izan.


Horrekin batera esan dio osoko bilkurako informazioa Informazio Batzordeen bitartez eta alkatearen bitartez ere ematen dela. Berak eskuduntza asko eskuordetu dizkio Tokiko Gobernu Batzordeari, eta Batzorde honetan alderdi politiko guztian daude ordezkatura.

### Sukia and.

Proposamenaren alde bozkatuko du eta gardentasunaren alde.

Ez da sortu den eztabaidan sartuko dokumentazioa eta datuak hor baitaude.

### Santamaria jn.



## Ordiziako Udala

2019IOSB0011

Esan du duela 4 urte, antolakuntzari dagokion osoko bilkuraren aurretik, bilera deialdiak egin zituztela beste alderdi politikoeekin eta orduan proposatzen zen eta orain egin nahi duten antolakuntza ereduaren kopia banatu zutela.

Gainera, alderdi politiko guztiei gobernuan parte hartzeko gonbidapena egin zieten eta uko egin zioten horri.

### Alkate jn.

Otxandio jaunak proposatutako eredia udalerrri batean baino gehiagotan ezarri den eredia dela esan du, eta coutcharekin egindako lan-saioetan ez dutela parte hartu udaleko teknikari guztiek, ezta alderdi politiko guztiek ere.

Tokiko Gobernu Batzordea ez da erabakitzailea izan eta bertara alkateak aintzakotzat hartutako gaiak eraman dira.

Orain arteko aldea da alkatearen eskuduntza asko Gobernu Batzordeari eskuordetzen zaizkiola, alderdi politiko guztiek parte hartzen dute bertan eta bertan adosten dira puntu horiek.

### Dubreuil jn.

Esan du ongi iruditzen zaiola antolakuntza ereduari aurrera egitea. Hainbat batzordetako parte-hartzea hobetzen du, baina abstenitu egingo da.

Arlo desberdinetako teknikariaren eta politikariaren artean egiten ziren delegazioak edo lan-bilerak zertan geratuko diren, zalantza hori du.

Aholku Batzordeak faltan botatzen ditu, eta, bere iritziz, garapenerako lankidetzeta-programa, enplegua sustatzeko programa ... itxuragabetzen ditu. Ordiziak eskualdeko langabezia-tasarekin alderatuta % 10 altuagoa du eta langabezia hori prestakuntza faltagatik da. Interesgarria litzateke alderdi hori Batzordeetako batean jasotzea.

Abstenitu egingo da, alderdi bakoitzeko hauteskunde-programaren arabera diseinatuta egon beharko lukeelako.

### Alkate jn.

Abantatea iruditzen zaio alderdi jakin baten hauteskunde programa Udaleko antolaketa-ereduarekin nahastea.

Bai, Aholku Batzordeak egongo dira, baina horiek ez dira legez nahitaezkoak. Jakina, eratuko dira, eta funtzionamendurako arauak osatzen eta onartzen joango dira.


Erantzun dio esanez asteroko delegazio edo lan-bileretan lantzen ziren gaien berri emango dela, gutxienez gai garrantzitsuenen berri Tokiko Gobernu Batzordeari; eta informazio hori emango dela kontsulta moduan Munigex eta Sareko tresnen bidez.

### Aranburu jn.

Esan duenez, R. Otxandioarekin egindako lanaren informazioari eta dokumentazioari dagokienez, prestakuntza-saioetan parte hartu duten udal teknikariek badute hori guztia.

### Alkate jn.





## Ordiziako Udala

2019IOSB0011

Esan du teknikariak joan egin daitezke eta beraiekin batera jasotako ezagutza, hala ere, dokumentazioa eta dossiera, baldin badaude, Udalean geratzen dira.

### Bozketa

Bozketa egin eta gero emaitza honako hau da:

**Aldeko botoak:** 16 (Ordiziako EH BILDU 7, EAJ-PNV 7, ORDIZIA ORAIN Elkarrekin-Podemos/Ezker Anitza-IU 2,)

**Aurkako botoak:** 0

**Abstentzioak:** 1 (PSE-EE(PSOE 1))

**Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**



Segidan alkateak hurrengo puntuaren berri eman du.

### **5.- Udalbatzaren menpeko Kide Anitzeko Udal Organoetako ordezkariak izendatzea.**

#### Proposamena

Udal honek parte hartzen duen organo eta erakundeetan korporazioko kideen izendapen hauek proposatzen dira:

#### **BARRUKO ORGANO ERABAKITZAILEAK**

##### **.- ENBA Batzordea**

- .- Adur Ezenarro Agirre, alkatea.
- .- Maitane Alvarez Garzandia (EH-BILDU ORDIZIA)
- .- Mila Sukia Galparsoro (ORDIZIA ORAIN Elkarrekin- Podemos / Ezker Anitza-IU)
- .- EAJ/PNV (1 proposatu gabe)
- .- Iñaki Dubreuil Churruca (PSE-EE (PSOE))


#### **ERAKUNDE AUTONOMOAK**

##### **.- HERRI ANTZOKIA**

- .- Adur Ezenarro Agirre, alkatea.
- .- Lander Mujika Onandia (EH-BILDU ORDIZIA)
- .- Juan Ignacio Alonso Arratibel (ORDIZIA ORAIN Elkarrekin- Podemos / Ezker Anitza-IU)
- .- EAJ/PNV (1 proposatu gabe)

##### **.- SAN JOSE EGOITZA**

- .- Adur Ezenarro Agirre, alkatea
- .- Ainhoa Jimenez Gofii (EH-BILDU ORDIZIA).
- .- Juan Ignacio Alonso Arratibel (ORDIZIA ORAIN Elkarrekin- Podemos / Ezker Anitza-IU)



## **UDALAREN MENPENKO ELKARTEAK**

### **.- ORDIZIA LANTZEN**

- Adur Ezenarro Agirre, alkatea.
- Maitane Álvarez Garziandia (EH-BILDU ORDIZIA)
- Jon Ander Caballero Zubelzu (EH-BIDU ORDIZIA)
- Mila Sukia Galparsoro (ORDIZIA ORAIN Elkarrekin- Podemos / Ezker Anitza-IU)
- EAJ/PNV (2 proposatu gabe)
- Iñaki Dubreuil Churruca (PSE-EE (PSOE))

### **- MAJORI KIROLDEGIA**

- Adur Ezenarro Agirre, alkatea.
- Jon Ander Caballero Zubelzu (EH-BIDU ORDIZIA)
- Maitane Álvarez Garziandia (EH-BILDU ORDIZIA)
- Juan Ignacio Alonso Arratibel (ORDIZIA ORAIN Elkarrekin- Podemos / Ezker Anitza-IU)
- EAJ/PNV (2, proposatu gabe)
- Iñaki Dubreuil Churruca (PSE-EE (PSOE))

## **UDALAZ GAINDIKO ERAKUNDEAK**

### **▪ SASIETA:**

- Maitane Álvarez Garziandia (EH-BILDU ORDIZIA)
- Juan Ignacio Alonso Arratibel (ORDIZIA ORAIN Elkarrekin- Podemos / ezker Anitza-IU)

Ordezkoak:

- Adur Ezenarro Agirre, Alcalde
- Mila Sukia Galparsoro (ORDIZIA ORAIN Elkarrekin- Podemos / Ezker Anitza-IU)

### **▪ HILTEGIA:**

Jon Ander Caballero Zubelzu (EH-BIDU ORDIZIA)  
Maitane Álvarez Garziandia (EH-BILDU ORDIZIA).

### **▪ UR PARTZUERGOA**

Juan Ignacio Alonso Arratibel (ORDIZIA ORAIN Elkarrekin- Podemos / Ezker Anitza-IU)

### **▪ ENIRIO-ARALAR MANKOMUNITATEA**


Adur Ezenarro Agirre, alkatea

### **▪ GOIERRI-BEHEKO INDUSTRIALDEA**

Adur Ezenarro Agirre, alkatea

### **▪ GOIMEN**

Maitane Álvarez Garziandia (EH-BILDU ORDIZIA).



## Ordiziako Udala

2019IOSB0011

- **GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA FUNDAZIOA**

Adur Ezenarro Agirre, alkatea

- **INGENIERITZA KONTSEILUA**

Adur Ezenarro Agirre, alkatea

- **IKASLAN**

Adur Ezenarro Agirre, alkatea

- **GOIEKI-GOITUR**

Adur Ezenarro Agirre, alkatea

Mila Sukia Galparsoro (ORDIZIA ORAIN Elkarrekin- Podemos / Ezker Anitza-IU)

- **ZUHAIZTI**

Ainhoa Jimenez Goñi (EH-BILDU ORDIZIA).

- **URDANETA IKASTETXEA**

Ainhoa Jimenez Goñi (EH-BILDU ORDIZIA)

- **EUDEL**

Adur Ezenarro Agirre, alkatea

- **EUSKAL FONDOA**

Adur Ezenarro Agirre, alkatea

- **OAINGUREN INSTITUTUA**

Ainhoa Jimenez Goñi (EH-BILDU ORDIZIA)

- **HIZKUNTZA ESKOLA**

Ainhoa Jimenez Goñi (EH-BILDU ORDIZIA)

### Eztabaida


Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Proposatutako izendapenak zerrendatu ditu.

Azaldu du proposamenean Sukia andreak ikusitako akats bat zuzendu behar dela Sasetako izendapenetan: Juan ignacio Alonso Arratibel izango da titularra eta bera, Miren Alazne Sukia Galparsoro ordezkoa.

Idazkariak zuzenketa egingo du.



## Ordiziako Udala

2019IOSB0011

### Santamaria jn.

Bozketa banatzea proposatzen du eta alde batetik barruko organo erabakitzaileak bozkatzea eta bestetik udalaz gaindiko organo edo erakundeen izendapenak bozkatzea.

GOIEKI SAN alderdi politikoez izan behar duten ordezkariak oraindik ez da adostu eskualde mailan.

Bere taldeko ordezkari bat eskatzen du Sasietan. Bere taldeko ordezkari bat proposatzen du mankomunitatean eta adierazi du aurreko legegaldian, gutxienez ordezkari moduan alderdi politiko guztiei eman zitzaiela bertan egoteko aukera.

### Ezenarro jn.

Proposamena blokean bozkatuko dela dio, eta, gainera, esan dio badakiela ongi asko Ordiziako osoko bilkuran hartutako erabakiak udalaz gaindiko erakundeetara eramango direla onartzen diren neurrian. Ez zen gauza bera gertatu aurreko legegaldian, gehiengoz, osoko bilkuran hartutako hainbat erabakirekin.

### Sukia and.

Esan du ez duela eskualde mailako akordio horren berri, baina aurreko legegaldian, eta kideen izendapena atzeratu zela eta eta, antolakuntzako osoko bilkuraren ondoren 2 hilabete galdu ziren eta ezin izan zuten ezer erabaki. Ez daude horretarako prest.

Santamaria jaunari zuzendu zaio, eta aurreko legegaldiko Sasietako deialdi bakoitzean landutako gaiak buruzko informazioa igorri zuela esan du eta beti talde guztiekin kontsultatu dituztela gaiak.

Egiten den deialdi bakoitzean, Bozeramaileen Batzordean edo gainerako talde politikoez aztertuko da gaia proposamen bat eramateko.

### Alkate jn.

Esan du proposatzen diren izendapenen bidez udalaz gaindiko erakundeetan Udalak duen ordezkariak eskubidea erabiliko dutela.

### Bozketa

Bozketa egin eta gero emaitzak honako hauek izan dira:

**Aldeko botoak:** 9 (Ordiziako EH BILDU 7, ORDIZIA ORAIN Elkarrekin-Podemos/Ezker Anitza-IU 2,)


**Kontrako botoak:** 7 (EAJ-PNV )

**Abstentzioak:** 1 (PSE-EE(PSOE)1).

**Beraz Alkate jaunak proposamena gehiengoz onartutzat jo du.**



